




ERREFLUXU GASTROESOFAGIKOA

SENDA-AGIRIA HARTU ONDORENERAKO ZAINTZAK ETA GOMENDIOAK

Zer da errefluxu gastroesofagikoa?

Urdaileko edukia hestegorrira igarotzeari esaten zaio.



Etxeko zaintzak?

- Garbitasuna:
 - Bere adinerako ohikoa garbiketa egiten den bitartean erdi eserita edukiko da.


- Elikadura:

- Biberioia maizago eman eta aldiko kantitate txikiagoa, senda-agirian zehaztutakoari jarraituz.
- Biberioia edo bularra eman ondoren ez berehala etzan edo eraman lotara. Eduki besoetan eta tente gutxienez 30 minutu, urdaila estutu gabe.



- Postura bidezko tratamendua:

- Ohea, sehaska eta umearen aulkia 30° makurtuta. Adierazitako posizioari eusteko pixohial-maindre batzuk gomendatzen dira; pixohial berezi horiek erosi egin daitezke edo etxean egin daitezke, ondoko marrazkian ikusten den moduan.



- Medikazioa:

- Ume gehienek ez dute medikaziorik behar; beharko balu, pediatrik senda-agirian adieraziko du dosia eta ordutegia, kontuan hartuta medikazioa bularra edo biberioia baino 15 minutu lehenago eman behar dela.
- Errefluxurako erabilitako sendagai batzuek arazo handiak sor ditzakete beste sendagai batzuekin batera hartuz gero; hori dela eta, oso garrantzitsua da pediatrik agindutakoari jarraitzea.